

LAN ATXIKIPENAK (desgaitasuna duten langile aktiboak)

Desgaitasuna duten langile aktiboari artikuluko honen 1. apartatuan aipatutako atxikipen ehunekoen taula orokorra aplikatuko zaie. Taula orokorra aplikatuz ateratzen den atxikipen ehuneko horri eskala honetan ezarritako puntuak kenduko zaizkio, langilearen egoeraren arabera:

a) Ehuneko 33ko edo hortik gorako eta ehuneko 65etik beherako desgaitasun maila duen langile aktiboa bada.

b) Ehuneko 33ko edo hortik gorako eta ehuneko 65etik beherako desgaitasuna duen langile aktiboa bada eta mugikortasun urriko gabezia egoeran badago. Horrelakotzat joko da abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuaren (desgaitasun maila onartu, aitortu eta kalifikatzeko prozedura ezartzen du) 2. eranskinean zehaztutako baremoaren A, B edo C ataletan jaso diren egoeraren batean badago edo aipatutako baremo horretako D, E, F, G edo H ataletan jasotako egoeretan 7 puntu edo gehiago baditu

c) Ehuneko 65eko edo hortik gorako desgaitasun maila duen langile aktiboa bada.

URTEKO ETEKINAREN ZENBATEKOA (€)		DESGAITASUN GRADUA	
Gutxienez	Gehienez	4.a) Apartatua	4.b) apartatua eta 4.c) apartatua
0,01	24.340,00	9	12
24.340,01	31.440,00	7	12
31.440,01	46.060,00	6	10
46.060,01	54.440,00	5	10
54.440,01	76.990,00	4	8
76.990,01	116.500,00	3	6
116.500,01	181.840,00	2	5
181.840,01	Hortik gora	1	3